



2HI-080/07-P05
BHI-298/06-P05

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN
BATZORDEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Uztailaren 26an Vitoria-Gasteizen Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak egindako 4/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

“ I.- Lezamako udalerriko “b) motako Plangintzako Arau Subsidiarioak” izeneko espedienteak planteatutako Lurralde Eredua balioztatzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko 5/1993 Legean adierazitakoaren arabera txosten-izaera loteslea den alderdietatik, honako termino hauetan:

I.- TXOSTEN IZAERA LOTESLEA DUTEN ALDERDIAK

A) Lurraldearen Antolamendurako Tresnetara egokitzea

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak:

Bizitegi Kuantifikazioa eta Lurralde Eredua.

- Azterketa honetan planteatutako bizitegi-ahalmenaren aldeko txostena egitea, 446 etxebizitza eraikitzeke egindako proposamena onargarria delako Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek eta Bilbao Metropolitanoko LZPk markatutako kuantifikazio-irizpideetatik.

- U.E.7 “Urgoiti” eta U.E.8 “Garaioltza” Gauzatze Unitateak mugatzeari dagokionean proposatutako Lurralde Ereduaren aurka balioztatzea, Lezamako erdigunearekin lotu gabe dauden garapen-proposamenak direlako. Horiek ez dute Lurraldearen Antolamendurako Dokumentuen babesa jasotzen. Horri lotuta, U.E.7 eta U.E.8 Gauzatze Unitateak ezabatzea proposatzen dute, Garaioltzako hirigunea landagune gisa mantenduta. Bertan, eraikitzeke aukera berriak onartu ahal izango ziren, 17/1994 Legean adierazitakoan oinarrituta.

Ingurune Fisikoa. Lurzoru Urbanizaezinerako definitutako Erabileren Erregimena eta Kategorizazioa. Landaguneak.

- Ingurune Fisikoaren kategorizazioa: I.c.- Lurzoru Urbanizaezinerako ezarritako kategorien alde egitea, bai eta ezarritako erabileren erregimenaren alde ere. Erregimen hori bat dator, LAAen Ingurune Fisikoaren Erabileren Matrizean ezarritakoarekin. Hala ere, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako, eta Landazabaleko kategoriaren barne, espedienteak espresuki adierazi beharko du, nekazaritza eta abeltzaintzarekin lotuak ez dauden bizitegi-erabilerak debekatuak daudela. Horrenbestez, erredakzioa zentzu horretan osatu beharko da.

- Lurzoru Urbanizaezinean etxebizitza berriak egiteko aukerari lotuta, espedienteak, hirigintzako araudia osatu beharko du, baratzeko edo abeltzaintzako ustiapen ekonomikoari lotutako etxebizitzarako lizentzia emateko baldintzei buruz 2/2006 legearen 31. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.



- Landaguneak: Madarias eta Aretxaldeko landagune mugatu berriak deskalifikatuko dituzte, landagune horien kalifikazioak, Bilbao Metropolitanoko LZPtik aurreikusitako Jarduera Ekonomikoetarako lurzoru gisa antolamendu-eredua hipotekatuko lukeelako aipatutako esparrurako.

Gune horien kalifikazioa ezabatu behar da, jarduera ekonomikoetako lurzoru horren neurriak eta mugak zehaztuko dituen lurralde honetako antolamendu-eskema idatzi arte.

2.- EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantabriarra)

- Abenduaren 22ko 415/98 Dekretu bidez EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantabriarra) behin betiko onartuta, ibilguk eragindako Lurzoru Urbanizagarriari dagozkien esparruen Zatiko Planetarako lotesleak diren antolamenduko zehaztapenetan, Lurralde Antolamenduko dokumentu horrek ezarritako eta txostenaren gorputzean adierazitako urbanizazioaren eta eraikuntzaren gutxieneko erretiroak jaso beharko ditu espedienteak.

- Halaber, kontuan izanda dokumentuan aurreikusitako garapen berrien zati bat, uholdeen prebentzioaren plan integralaren arabera, itzulaldi diferentetarako urek gainezka egin dezaketen eremutan dagoela, alderdi hori kontuan izan behar da bertan egin nahi duten edozein esku-hartzerako. Hori hala egingo da, lurraldearen antolamendurako artezpideen zehaztapenak (8. kapitulua, 6.8.8.5. idatz-zatia), eta ibaien eta erreken ertzak antolatzeko lurraldearen arloko planaren e.1.4 idatz-zatian ezarritakoa betez.

3.- Jarduera Ekonomikotarako Lurzoru Publikoak eta Ekipamendu Komertzial Publikoak Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.

- Antolamendu-ereduaren eta Jarduera Ekonomikoetara zuzendutako proposatutako lurzoru-kopuruaren aldeko txostena egitea, kopuru hori bat datorrelako lurralde-antolamenduko dokumentuetan ezarritako zehaztapenekin.

- “Merkataritza Ekipamendu Handien Lurralde Arautzea” izeneko LAPeko 14. artikulua 3. puntuan adierazitakoa betez, proposatutako Jarduera Ekonomikoetako arloko garapen-plangintzarako zehaztapen lotesle gisa, erabilien erregimena LAPen adierazitako mugekin bat etorri beharko duela jasoko da. Horregatik, egin daitezkeen ekipamendu komertzial berrien neurri maximoa, honako parametro hauek kontuan hartuta arautuko dute: «Plataforma berdinduko gehienezko azalera garbia: 75.000 m²»; eta «Sabai eraikigarriko gehienezko azalera: 25.000 m²(t)».

B) 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Bigarren Xedapen Iragankorra.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2.006 Lege berriaren Bigarren Xedapen Iragankorraren arabera, espedienteak S.R.1 Aretxalde sektorearen gutxieneko eraikigarritasuna, legearen arabera ezarritako 0.4 m²/m²s-ra egokitu beharko du.

C) Uren Zuzendaritza.

07.07.24ko data duen Uren Zuzendaritzaren txostenaren baldintza lotesleak bete beharko dira.

D) Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza.

Lezamako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen azterketa onartzeko, alde aurretik ez da lurzoruaren kalitatearen aitortzea egin behar, lurzoru kutsatu ahal izan duten jarduerak jasan dituzten lekuak dituzten jarduera-esparruen kalifikazioa aldatuko ez delako.



E) Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza.

Instalazio berriko abeltzaintza-ustiategiatarako araudia aplikatzea.

Jarduera-lizentzia lortu behar duten instalazio berriko abeltzaintza-ustiategiek, *abeltzaintza-ustiategien arau teknikoak, higiene- eta osasun-arauak eta ingurumen arloko arauak ezartzen dituen uztailaren 6ko 141/2004 Dekretuan* adierazitakoa bete beharko dute. *Ingurumena Babesteko Legean* aurreikusitako *jarduera-lizentzia lortzetik salbuetsiak* dauden *jarduerak ezartzen dituen martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren* arabera jarduera-lizentzia lortu beharrik ez duten ustiapenek, Dekretu honetako IV. Eranskinean ezarritakoa bete beharko dute.

F) Kultur Ondarearen Zuzendaritza.

1.- Santa Maria Eliza eta Santo Kristoren Ermita Santiago Bidean daude, Kultur Ondasun gisa kalifikatuak, Monumentu Multzokategoriarekin, urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren arabera (otsailaren 11ko, ostirala, 29. EHAA). Dokumentuak, eraikin horietan esku hartzeko garaian Dekretu horretan ezarritako Babes Erregimenaren aplikazioa esplizituki aipatu behar du.

2.- Lezamako Dorrea Kultur Ondasun gisa deklaratu dute Monumentu kategoriarekin, Ondasunari aplikatu dakiokeen babes-erregimena eta mugak ezartzen dituen azaroaren 11ko 275/2003 Dekretu bidez (2003ko azaroaren 19ko EHAA). Dokumentuan adierazi beharko da, Ondasun Kalifikatua eman daitezkeen eraikuntzako esku-hartzeak, kalifikazio-dekretu horretan ezarritako babes-erregimenean xedatutakoaren arabera erregulatuko direla.

3.- *Artxandako Kokalekua III, San Antolin Ermita eta Lezamako Asentamendua* (testuan Lezamako Udala) dokumentuan aipatu ez diren Arkeologikoak izan daitezkeen Eremuak bildu beharko dira.

4.- Dokumentuak zehaztu beharko du, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 49. artikulua ustezko eremu arkeologikoei ematen dien babesa.

II.- Ziurtagiri honekin batera doazen Uren Zuzendaritzak (I. Eranskina), Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzak (II. Eranskina), Landa eta Itsasertzaren garapenerako Zuzendaritzak (III. Eranskina), eta Kultur Ondareko Zuzendaritzak (IV. Eranskina) egindako txostenak organo eskudunari gortzea, honek behin betiko onar ditzan.”

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko uztailaren 26an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea Iturregi.